

Kirol Zerbitzua

Albisteak

MU eta Euskadiko txapelketetan izena emateko epea zabalik

2012/01/18

Heldu da otsaila eta noski, baita gure unibertsitate-kirol txapelketa garrantzitsuenak jokatzeko garaia ere.

Lehena, **Mondragon Unibertsitateko lau fakultateak elkartuko dituen txapelketa** izango da, MGEP, HUHEZI, Enpresagintza eta Basque Culinary Center fakultateen artean jokatu da. Arrasaten otsailaren 8an, goizeko 9etatik 13:00ak bitartean. ([informazioa](#))

Bigarrena **Euskal Autonomi Erkidegoan kokatuak dauden hiru unibertsitateen artekoa** izango da, hau da, Mondragon Unibertsitatea, EHU eta Deustu. Txapelketa hau ere Arrasaten ospatuko da otsailaren 14an, goizeko 10:00etatik 14:00ak bitartean. ([Informazioa](#)). Gainera, aurten Euskadiko txapelketak [logotipo berria](#) estreinatuko du.

MU barneko txapelketako garaileek Euskadiko txapelketan jokatzeko aukera izango dute, eta bigarren txapelketa hau irabazten dutenek aldiz, espainiar estatuko unibertsitateen kontra.

Honenbestez, txapelketa hauen partaide izan nahi duen orok [webgunean](#) edo Kirol Zerbitzuetan eman beharko du izena, beranduenean, eguna baino astebete lehenago.

Animatu zaitetz, lagunarteko giroa, kirola, opariak etabar aurkituko dituzu eta!

